

Alboka abesbatza

Begi-bistakoa den talde aberastasun eta aniztasunari erreperatuta, zenbaki honetatik aurrera, Drogetenitturrik sail berri bat kaleratuko du orri honetan. Sekzio honen helburua, dauden talde ezberdinen berri jasotzea eta ezagutzea ematea izango da. Atal hau osatzeko zuen laguntza ezinbesteko aurreikusten dugu; hori dela eta, aurrerantzean zuekin harremanetan jarriko gara, informazioa bildu eta argazkia egiteko.

80. hamarkadan sortutako ahots zurien abesbatza sortu zenetik, 2006ra arte Maria Elena Iturriagagaitiak zuzendu du, 2006tik aurrera, ordea, Elisabeth Sarriugartek zuzentzen du gazte jendea sortutako abesbatza hau.

- Zein urtetan sortu zen taldea?

1984an sortu zen eta gaur egun adinaren-gatik bitan dago banatuta: Alboka Txiki eta Alboka. Lehenengoan 7-14 urte bitarteko gazteak ari dira eta Albokan, 14tik gorako gazteak daude, adin mugarik gabe. Bertako guztiek formazio eta ezagupen musikala dute.



-Zenbat kide zarete?

Momentu honetan Albokan 22 lagun gaude, gehi zuzendaria.

-Zein maiztasunekin biltzen zarete eta non?

Alboka Musika Eskolan egiten ditugu entseguak astean bitan, ordu betez arituz.

-Zein helburu dituzue?

Kantuarekin gozatzeta eta musika ezagupenak kantuan eranstea da. Bestalde, Ermuan eta Ermutik kanpo ekitaldiak egitea.

-Urtean zehar zeintzuk ekintza egiten dituzue?

Normalean finkoak

diren kontzertuak honako hauek izaten dira: Begoñako kontzertua (Bilbon), udaberriko kontzertuak 4 izaten dira, bat Ermuan eta beste hirurak Ermutik kanpo. Ekainaren bukaeran Alboka Musika Eskolako eguneko kontzertua, urrian hamabostaldi musikaren barnean egiten dugun kontzertua eta urte bukatzeko Santa Zezilia eguneko. Horiez gain, beste abesbatza batzuekin trukeak egiten saiatzen gara eta noizean behin bidaia bat egiten dugu. Aurten egiteko asmoa dugu.

**OKINDEGIA
GOZOTEGIA**

San Antonio

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

GARAGARDOEGIA

CERVECERIA

ZYTik

OTARTEKO eta
IMPORTAZIOZKO
GARAGARDOtan
berezitasuna